

Austerlitz, memoriaren korronte ezkutak

Idoia Santamaria

Itzultzailea

Anbereseko Central Staationen aurkituko du liburu honetako narratzaile izenik gabeak Jacques Austerlitz, bere iraganaz oroitu ezin den gizona. Hamarkadaz hamarkada eta hiriz hiri luzatuko dira bien arteko solasaldiak, lainoan bildutako memoria argitzeko ahaleginean. Idoia Santamariarekin hitz egin dugu, hark euskaratu baitu, Igelaren eskutik, W. G. Sebald alemanaren lanik ospetsuenetako bat, justu hil aurretik argitaratua. Ekainaren 4an Ziburuko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan itzulpen lan honetaz arituko da Santamaria.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Liburu honek 400 orrialde ditu ia, eta lau paragrafo baino ez. Nola hartu zenuen itzultzeko proposamena?

Hasieran beldur handia izan nuen. Sebald ezagutzen nuen, eta *Austerlitz* irakurria neukan, gaztelaniazko itzulpena, Miguel Sáenzena. Gogoratzen dut irakurri nuenean ikaragarritzko inpaktua egin zidala, eta oso ondo gogoratzen nuen irakurri ahala pentsatu nuela: nola kristo itzuli du hau!

Animatu zinen hala ere.

Bai. Banekien sekulako erronka izango zela: gaizki pasatuko nuela, baina

ondo ere bai. Lau paragrafo izatearen okerreana da ikaragarri zaila dela erre-pasatzea –testuak bisualki ez baitizu laguntzen–, eta tonu bera mantentzea.

Noiz hasi zinen itzultzen?

2020ko udazkenean-edo, eta iazko abenduan entregatu nuen. Azken hiru hilabete hauetan erre-pasatzen ibili gara. Maketak lan handia eman du, argazkiak baitaude, eta nik mila aldiz berrikusi nahi nuen.

Argazkien kontuak harritu ninduen.

Sebalden fikzio-lanei buruzko eztabai-detako bat izaten da ea nola deitu behar zaien: nobelak, ipuinak... Sarrionandiak bukaerako hitzostean artefaktu narratiboa deitzen dio. Autoreak berak, elkarriketetan-eta, *prose fiction* izena erabiltzen zuen, fikziozko prosa, eta bere lan guztietan baliatzen ditu argazkiak, ez honetan bakarrik.

Argazki batzuk zehatzak dira, eraikin baten planoa esaterako, baina beste batzuetan pertsonak agertzen dira, eta zalantza sartzen zaizu nor ote diren.

Ez dago jakiterik. Badakigu Sebaldetik dokumentazio-lan handia egiten zuela eta batzuetan artxibategietako baime-narekin erabiltzen zituela argazkiak, nahiz eta polemikak ere izan zituen horrekin. Halako *mélange* bat egiten zuen. Dokumentazio-lan handia egin arren, horrek ez du esan nahi pertsona horri dagokion guztia zehatz-mehatz kontatzen duenik. Adibidez, Jacques Austerlitz buruz esaten zuen bi pertsona eta erdiri buruzko dokumentazioarekin osatuta zegoela. Argazkiak, batzuetan, berak eginak dira; beste askotan berriz, antigoaleko altzarien eta bestelako objektuen merkatuetan eskuratzen zituen. Oso gogoko zuen arakatzeko-lan hori.



Austerlitz lehen aldiz irakurri zenuenean inpresio handia egin omen zizun. Zergatik?

Idazleak esplizituki idazten duena –liburuan agertzen dena– ez da berak kontatzen duen guztia, horrek miresten nau: denbora guztian iradokitzen du kontatzen duen horren azpitik badagoela beste zerbait, korronte geldo moduko bat, eta idazkera bera da istorioaren giro-sortzaile nagusia eta istorioaren hari oso inportante bat.

Hari hori Holokaustoa da.

Bai, nahiz eta bere fikzioan ez duen ia behin ere aipatzen. Liburu honetan aipatzen da lehendabiziko aldiz esplizituki, Theresienstadtteko kontzentrazio-esparrua agertzen denean. Bestalde, oso modu sinesgarrian dago kontatua nola Austerlitzek uko egiten dion garai historiko hori ezagutzeari, badakielako hor badagoela zerbait oso mingarria. Eta uste dut Sebaldek idazketaren bidez erakusten duela nola oroitzen ditugun gauzak: ez dago segida lineal bat, ez da inondik ere gauza kronologiko bat, baizik eta saltoka egiten dugu, oroitzapen batek beste batera eramaten gaitu, nahiz ez egon lotura agerikorik bien artean.

Arkitekturaren historiari eta eraikinen zehaztasunei buruzko hamaika hausnarketa daude orobat.

Sebalden liburuetan beti agertzen da kolonialismoa, zuzenean edo zeharka. Hemen, oso zehazki. Liburua Belgikan kokatzeak Afrikako eta Kongoko auzi guztia aipatzeko aukera ematen dio, besteak beste Afrikatik ekarritako aberastasunek nola ahalbidetu zuten halako eraikin monstrosoak sortzea. Liburuaren hasieran batik bat, zenbait eraikin erraldoiri eta gotorlekuen eraikuntzari buruzko orrialde ugari dago.

Niretzat oso interesgarria izan da, asko erakusten dizu arkitekturaren historiaz –izan ere, Austerlitz, liburuko pertsonaia nagusia, arkitektura-historialaria da–, baina sekulako tripako mina eman dit. Nire lankide batek, Alfontso Mujikak, EHUrako itzulitako arkitektura-hiztegi irudiduna erabili dut, eta oso ondo etorri zait.

Beste buruhauste aipagarririk izan duzu?

Sebaldek gai askori buruzko jakintza infinitua du, eta kontuan izan behar duzu

hori guztia itzultzean. Esate bate-rako, naturaren deskribapen ugari dago liburuan; tximeletak ageri dira, adibidez. Gaueko tximeletak aipatzen dira, baina izen arruntarekin, ez zientifikoarekin. Eta izen arruntak zeintzuk erabiltzen dituzte gehien? Normalean, tradizio naturalista handia duten herriek eta hizkuntzek. Alegia, Ingalaterrak eta Alemaniak asko. Espainolek askoz gutxiago, eta guk zero. Orduan nik behar nuen norbaitek esateko liburuko sitsen izen horietarako zer izen arrunt erabili behar nituen euskaraz.

Asko dokumentatzen zara itzulpenak egin aurretik.

Asko gustatzen zait parte hori, bai. Hori egiten duzun bitartean ez dago erantzukizunik eta ez dago itzulpen-arazorik. Bat-batean zara estudiante boluntario bat, eta gainera ari bazara gustatzen zaizun gai batekin edo autore batekin... Baina arriskutsua da, zeren egon baitzaitezke horrela nahi adina, eta horrelako autore batekin zer esanik ez. Pasa ditzakezu bost urte dokumentatzen eta lerro bakar bat ere itzuli gabe eta zentimo bakar bat ere kobratu gabe, bide batez. Beharbada nire segurtasun faltaren ondorio ere izango da pixka bat; iruditzen zait, hori egiten badut, itzultzen hasten naizenean hobeto moldatuko naizela. Baina batzuek nahiago dute hutsetik hasi. Uste dut Koro Navarriori entzun izan diodala inoiz, nahiago duela irakurle huts baten larruan jarri eta figura horretatik itzuli, aurrez besterik jakin gabe, alegia.

Elkarren segida samarrean itzuli dituzu Friedrich Dürrenmatt, Ingeborg Bachmann eta W.G. Sebald. Horren aurretik baziren urte batzuk ez zenuela literaturarik itzultzen.

Erabakiren bat dago hor tartean? Bi erabaki daude. Batetik, berriro heltzea literaturari. 1992an-edo [E.M.] Forsterren lan bat itzuli nuen ingelesetik; garai hartan Bilbon bizi nintzen, bizimodu disipatu samarra neukan nolabait esateko, eta ezinean ibili nintzen: tarteka egin nuen, utzi, berriz hasi, ez nintzen batere konforme geratu itzulpenarekin. Eta, bestetik, urte askotan etxeko egoeragatik zaintza-lan handiak izan ditut, eta

oso zaila zitzaidan eguneroko lanaz aparte beste gauza batzuk egitea. Eta hasierako itzulpen harekin ez nintzenez kontentu gelditu, halako zera bat, beldurra-edo, gelditu zitzaidan.

Aita hil zenean, lehenengo gauza erabaki nuen Alemaniara joatea bolada batez, batetik haize pixka bat hartzera, eta bestetik alemanari astindu on bat ematera, herdoildu samarra bainean ez erabiltzearen ondorioz. Eta bi urtez, lanean jarraitu bitartean, pasatu nituen urte ba-koitzetik hilabete batzuk Berlinen, lanean baimena eskatuta; C2 maila atera nuen, eta esan nuen: orain bai, ateratzen baldin bazait aukeraren bat, gogoia daukat. Halako batean atera zen lehendabizikoa lehiaketara, Dürrenmattena, eta eman egin zidaten. Eta hori argitaratu bezain pronto, Bachmannena atera zen lehiaketara; aurkeztu nintzen pentsatuz ez zidatela emango, eta hura ere aurrera.

Eta gero Sebald.

Xabier Olarrak esan zidan Igela argitaletxeko ardura batzuk uztera zihoala, eta Lander [Majuelo] has-tekoa zela. Eta hark berehala proposatu zidan Sebald itzultzea, *Austerlitz* hain zuzen. Eta horrela izan da. Gauzak ia kasualitatez gertatzen dira eta bat-batean bihurtzen zaituzte alemaneko espezialista! Egia esan, gustura nago. Egokitu zaizkit Erdialdeko Europako hiru ikur, asko gustatzen zaizkidanak, eta aukera ematen didate inguru horretako historian sartzeko –nire obsesioetako bat da–; asko interesatzen baitzait inguru hori, bertako historia eta mugimendu artistikoa batez ere. Iruditzen zait asko daukagula oraindik ikasteko eta asko dagoela hor dagoen literatura-tik oraindik itzultzeko. Asko.

Bachmannen itzulpenagatik Euskadi Saria eman zizuten. Bejondeizula.

Egia esan, sekulako sorpresa izan zen. Ez nuen espero. Ni konbentzita nengoan, eta benetan ari naiz, Ireneri [Arrarats] emango ziotela [Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* kaleratu zuen urte berean]. Gero lagun batek esan zidan saiake-rak normalean ez dituztela saritzen. Egia esan, ez dakit literatur lanek eta saiakerek kategoria bana ez ote lu-





keten eduki behar itzulpen-sarietan, saiakerak ez daitezen beti albo batera gelditu. Bestela, itzulpenerako sari bakarra egotekotan, saiakerek errazago sartu behar lukete bonbo horretan. Gainera, azkenengo urteetan asko igo da saiakera-produkzioa. Eta *Bigarren sexuaren* kasuan, gauza kanonikoagorik... Ez naiz kexatuko, noski e? Baina ez nuen espero, benetan.

“ ”

***Liburu honetan
aipatzen du
Sebaldek
lehenbiziko aldiz
Holokaustoa
esplizituki***

Besterik esan nahi zenuke?

Animatuko nuke jendea Sebald irakurtzera, euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan, ez dut esaten nire itzulpenagatik. Askok merezi duen egilea da. Iruditzen zait orain badagoela joera bat askorik gustatzen ez zaidana: ematen du ikaragarri erraza ez den norbait gomendatzen baduzu, pedante bat zarelara; *coola* izan behar duzu, gauza ari-nak gomendatzea delako super *cool*. Eta niri amorrazio pixka bat ematen dit. Henry Jamesen nobelak errazak dira? Edo Virginia Woolfenak? Horrekin ez dut inondik ere esan nahi errazago irakurtzen, entzuten edo ikusten diren gauzen kontra nagoenik, inondik ere ez, baina pentsarazi eta batzuetan deskolokatu nauten lanak izan dira betirako gelditu direnak nirekin.

Hondamendiak eta erbesteak zeharkatzen dute Sebalden lana, eta hala ere haren liburuak bukatu eta go-goia ematen dizu berriro hasteko. Badute magnetismo bat, erakarri egiten dute, eta aldi berean, orria pasatzearekin batera sentsazioa daukazu zerbait lurrundu egiten dela, desagertu. Oso konbinazio erakargarria da, eta alde horretatik, nahiz eta ez izan erraza deitzen den horietako bat, nire ustez oso autore gomendagarria da. ●